



Sagar asko izango da aurtengoan, irudian agertzen den moduan. [IÑIGO GOÑI]

«Kantitatez sagar ugari eta maila handikoa izango da aurtengoa»

- ▶ Mahairako sagarraren bilketa hastear da hurrengo egunetan
- ▶ Manuel Iradi, Zabalo-Enea baserriko arduradunaren esanetan: «Aurten sagarra hamar egun lehenago dator»

BAI HORIXE
ARANTXA URRETABIZKAIA

TRADIZIO GORDINAK

Indiako herriska batean, joan den astean bertan, senarraren gorpua erre behar zuen suan, emazte alargundu berria ere erre dute. Tradizioaren izenean.

Horrelaxe zabaldu zen berria, munduan zehar, legeak aspaldian debekatu zuen ohituraren iraupena adieraziz. Gero, egunekin batera, xehetasun gehiago heldu zaigu, hasierako ikarari izua gehituz.

Ikerlarien esanetan, alarguna, hirurogeita bost urteko andrea, ez zen gogoz igo sutzarrera, ez omen zuen tradizioa erabat bete. Horretarako, ohitura borobiltzeko, alargunak gogoz igo behar omen du eta su gainean eserita egon, garrek lana bete bitartean. Eserita eta geldirik.

Jarri zuten senarra egurrez inguraturik, eraman zuten bertara alarguna eta seme batek piztu zuen gutzia. Momentu hartan heldu omen zen polizia, tradizioa ukatzen duen legea betearazteko asmoz. Alferrrik, ordea, suaren inguruan bildutako pertsonen harrika baztertu baitzituzten.



Urte sasoi honetan hasten da geure baserrietako sagarraren bilketa, nahiz eta gehienbat neguan herri desberdinetako plazetan saldu eta sagardo moduan edaten den. Hernanin Zabalo-Enea baserrian, sagarraren ustiapenez arduratzen dira eta bere nagusia den Manuel Iradiren esanetan sagar bilketarako jadanik prest dira.

Aurtengo sagarraren kalitateaz eta produkzioaz Manuel Iradik dioenez: «sagarra aurten kantitate aldetik oparotsua da, sagar asko dago. Eguzki faltagatik ordea oraindik ere gozotasuna hartzea falta zaió».

Eguraldiaren eragina bistakoa da nekazaritza lanean eta egin duen giroari buruz honako iritzia

dugu, aurretik ura nahikoa baitzuten sagarrondo eta udareondok. Aldiz eguzkiaren beharra dago lehen aipaturiko gozotasun hori lortzeko, abuztuak eguzkitsua izan behar du sagar gozoa lortu nahi badugu».

Kantitate eta kalitate on honen arrazoiak neguan aurkitzen dira. Abenduan egin zituen izotzeri esker loraldia egokia izan da, honek lorazaintzan ezagutzen den geldialdi begetatiboa sortu zuen. Prozesu honek ikaragarri lagundu die batez ere udarendoei.


Udare urte oso ona izango da Iradiren esanetan. Sagarra aurreko urteekin alderatuz hamar bat egun lehenago dator eta hilabete honen amaiera baino lehen dendetan eta azoketan aurkitu ahal izango da. Iaz iraila baino lehen

Laurogei sagar mota

Zabalo-Enea baserrian 80 sagar mota aurkitzen dira, hauetatik 30 jatekoak eta 50 sagardotarakoak. Kanpoko jatorria duten sagar moteri ez die muzin egiten Iradik: «Euskal Herrian jatorrizko sagar onak baditugu Errège sagarra edota Urtebia esaterako baina jatorri atzerritarra dutenak eta bertan emaitza zoragarriak lortu dituztenak ere badira, Elstar, Bella Boskop edota Urreztei esaterako».

Sagasti gutxi Euskadin

Gipuzkoan sagastiekin arazoak daude. Sagasti gutxi dago eta honek arazoak sortzen ditu, sagardo produkzioa bertako sagarrekin egiteko eta dendetan aurkitzeko. Iradik dioenez: «gure



Kalibre ona sagarrak. [IÑIGO GOÑI]

inguruari begiratzen badiogu sagarraren egoera larria dela konturatuko gara. Hainbat herrirekin alderatuz sagasti gutxiago ditugu, Frantziak edota Britainia Handiak abantaila ikaragarria ateratzen digute bai kantitate mailan eta baita azpiegituran ere». Hala ere aurtengo Euskal Herriko sagarrak kalitatea izango du eta azoketan aurkituko da.

dukatu zen zeremonia eta nasi poliziaren eta epaileen lana. Sua piztu zuen semearen esanetan, amak gogoz eskaini zuen bere burua baina, azken momentuan, emozioaren eraginez edo, atzera egin zuen eta ikusle gisa bildutako gizon batzuek andrearri falta zitzaion indarra eskaini zioten, besterik ez. Sobran zuten adorea oparitu zioten alargunari, tradizioa bete zedin.

Hori aipatzen omen du semeak, behin eta berriro, tradizioa. Eta bertan jaio ez den jendeak ezin duela han gertatzen dena ulertu. Legeak nahi duena esango omen du, baina alferrik, bertakoen emozioak ulertzen ez dituelako.



Concierto de **Musica Electroacústica e Instrumental** al aire libre

“con el aire cortado el hierro”

Compositor: **Gorka Alda**

Museo Chillida-Leku

Martes 13 de agosto de 2002* | Hora: **19:00h.** | Duración: **1:20h.**

*En caso de lluvia el concierto se traslada al día 14 de agosto 2002. Si no pudiese celebrarse este día el concierto quedará suspendido y se devolverán los importes por abono automático. Si el tiempo alberga alguna duda pueden saber si el concierto se celebra a través de las web www.begira.com y en www.eduardo-chillida.com y en el tel. **943 33 60 06**

ORGANIZAN / ARTOLATZAILEA

COLABORA / LAGUNTZAILEA

VENTA DE ENTRADAS / SARREREN SALMENTA:

Normas generales:

La suspensión del concierto, no así su aplazamiento, será la única causa para la devolución del importe de las localidades. No será posible la reposición de las localidades en caso de pérdida, deterioro, robo o destrucción. No será atendida ninguna reclamación una vez retiradas las localidades.



EL DIARIOVASCO

943 41 12 00



www.begira.com



ZABALIK

Gizartea, Kirola, Kultura, Ekonomia, Aisia...

Euskarazko zure astekaria ostiral, larunbat eta igandeetan salgai.